



## SENTIMENDU EKONOMIKOA


# Sentimendu ekonomikoak okerrera egin du urte amaieran

SENTIMENDU EKONOMIKOA.  
EUROGUNEA

2025EKO ABENDUA

96,7

Abenduan, Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoak okerrera egin zuen zertxobait, bai eurogunean, bai Europar Batasunean. Horrela, lehenengo kasuan indizea 96,7ra jaitsi zen, aurreko datuaren lau hamarren azpitik, eta duela lau hilabete hasitako goranzko bidea eten zuen; bigarren kasuan, berriz, 96,8ko balioa erregistratu zen, hori ere batez besteko historikoaren azpitik, 100 balioa ematen baitzaio. Osagaien araberako analisiak




adierazten du industrian ezkortasun handia dagoela gaur egun, bere batez besteko balioa baino bost puntu beherago baitago, nahiz eta zertxobait hobetu den aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Zerbitzuak eta txikizkako merkataritza batez bestekotik hurbil daude, eta eraikuntzaren sektoreak soilik ematen du nola-baiteko baikortasunaren irudia. Azkenik, ziurgabetasunaren adierazleak zertxobait okerrera egin zuen 2025eko azken txanpan (96,8).


SENTIMENDU EKONOMIKOA.  
EUROPAR BATASUNA

2025EKO ABENDUA

96,8




## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdeka aztertuta, portaera diferentziala ikusten da eremuko bi ekonomia nagusien eta pisu handiena duten hurrengo bien artean. Hala, Alemaniako indizeak okerrera egin du pixka bat urteko azken txanpan, 90,1era iritsi arte, industria batez besteko erregistrotik hamabost puntu baino beherago bait dago, eta eraikuntzak bakarrik konpentsatu du partzialki emaitza txar hori. Bestalde, Frantziak ia puntu bat galdu zuen abenduan eta 94,3an kokatu zen, txikizkako salmenta eta eraikuntza batez besteko balioetatik oso urrun zeudela. Beste muturrean Es-

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




painia dago, abenduan nolabaiteko erritmoa galdu arren 104,6an kokatu zena; kasu honetan, industrian portaera nahiko positiboa eta eraikuntzan oso baikorra izanik. Gainera, enpleguari buruzko igurikimenek gorantz jarraitu zuten, eta batez bestekoaren oso gaineratik (110,9). Italiak ere Alemania eta Frantziak baino irudi hobea eskaintzen du, eta batez besteko balioaren gaineratik dago (101,1). Kasu honetan, zerbitzuen eta txikizkako salmenten bilakaera onak azaltzen du maila hori.

## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



## SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.